



Hernani - Goizueta oinezko bide zaharra: Urumea bailara pausuz pausu

■ JOSE JABIER ETXEBERRIA

Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen errepidea Urumea bailararen parte da jada. Gure begiek paisaian onartu dute, eta guk hala barneratu dugu dagoeneko. Errioaren eta basoaren babesean sigi-saga doan asfaltozko suge beltz baten moduan barneratzen da Gipuzkoa eta Nafarroa artean GI-3410 eta NA-4150 izenekin ezagutzen dugun errepidea. Goroldioak eta hezetasunak urtez urte zigortzen duten bide honen historia, ordea, ez da hain luzea. XX. mende hasieran izan zen inauguratua, eta ordutik, makina bat ibilgailuren eguneroko joan-etorrien eremu bihurtu da. Horrek guztiak, alabaina, galdera bat ere sortu digu bailarako hainbat herritarro: errepiderik eta ibilgailurik ez zenean, zein zen Urumeako herriak lotzen zituen oinezko bidea? Nondik ibiltzen ziren Urumea bailarako herritarrak?

Hernanitik Goizuetara, edota Ereñotzutatik Aranora. Aranotik Hernanira, edota Goizuetatik Ereñotzura. Errepiderik gabeko Urumea hartan izango ziren makina bat bide eta bidezidor bailaran barrena. Guztiak deskribatzea ezinezkoa da, alferrikako lana izango zen agian horiek guztiak aurkitzea, eta horiei guztiei buruzko informazioa biltzea. Bailaran barrena, baina, izan ziren bide edo bide-zati batzuk nagusitu egin zirenak. Erreportaje honetan, Hernani, Ereñotzu, Arano eta Goizueta lotzen zituen oinezko bide zaharrari buruz hitz egingo dugu, eta baita proposamen bat bota ere Udalei: Zergatik ez bailara lotzen zuen oinezko bide zaharra berreskuratu?

Bidea aurkezteko, Hernani eta Goizueta arteko bide zaharren gain dauden datu geografiko eta historiko labur batzuk azalduko ditugu. Dokumentu zaharrak, adineko herritarren testigantzak eta artxiboan aurkituriko XIX. mendeko mapa batzuk izango ditugu oinarri. Horiek guztiak izango dira bide zaharrari sasiak kentzen lagundu nahi diotenak. Bide zaharra zabaldu eta berri-tzeko erabili nahi ditugunak.

SIGI-SAGA URUMEAN BARRENA

Orain horren basatia eta ukitu gabea dirudien Urumea bailarak, historian zehar sekulako mugimendua izan du bere baitan. Asko izan dira bertan mugitu diren herritarrak, eta bertako gizartea ere aldatzen joan da denboraren poderioz, gainontzeko lekuetan gertatu den moduan. Hala, Urumean ere etorri zen errepide berria egiteko beharra. Burdinolen krisialdi larrian, XIX. mendeko erdialdean, Urumea bailaran industri berriaren oinarriak ezartzen hasi ziren. Honek 1863. urtean Gipuzkoako Juntak Hernani eta Goizueta arteko errepide berriaren proiektua onartu zuen, eta guk gaur ezagutzen dugun "karretera" XX. mendeko lehen hamarkadan ireki zuten. Bide berri hau beharrezkoa izan zen Urumean hainbat argiztapen zentralak eraikitzeko eta horrela XX. mendearen hasieran emanen zen iraultza industrial handiak behar zuen elektrizitatea lortzeko. Donostiako hiriaren hazkunde handiak behar zuen ikatza, janaria eta batez ere urez hornitzeko azpiegiturak altxatzeko ere ezinbestekoa izan zen. Aldi berean, alabaina, oinezko bide zaharrak egin ez zuen bezala, errepide berri horrek Aranoko herria alde batera utzi zuen, gurutzetik 3 km-ko distantziara. Bide zaharrak lotzen zituenak, banatu ditu errepide berriak. Bidea azkarrago egiteak ez baitu bera-ekin herrien arteko harremana handituko denik esan nahi.

"Hogeita bost kilometro". Goizuetarrak barnertua daukate Hernanirako errepide korapilatsuak duen kilometro kopurua. Goizueta bezalako herri txikiek bizi duten egoerari begirada bat ematen badiogu, biztanleak jaisten eta zahartzen doazela ikusten dugu, eta, era berean, gazteentzat lanbide gutxi dagoela. Ikasleek eta langileek kanpora joan beharra dute bizitzera, edo egunero automobila hartu eta joan-etorrian ibili. Askotan arazo hauen erru nagusia errepide bihurri honi botatzen zaio. Goizueta Donostialdeko industria, zerbitzu eta komunikazio moderno eta indartsuenetik ordu erdira uzten baitu. 30 minutukoa da Hernaniko garraio sare ugariari lotzeko beharrezko denbora eta, minutu horiek dira, azken finean, Hernaniko inguru urbanizatuetatik landa eta natura gailen den Goizuetakoan murgiltzeko aukera ematen dutenak.

Urumea ibaia Goizuetako 150 metroko altueratik Hernaniko 22 metrora jaisten da, eta errepidea edo "karretera" paretik doa. Leitzako mendietatik abiatzen da hegoaldeko iparraldera, norabide nahiko zuzenean Urdaidera. Pasaia aldera zuzenean segitu beharrean, ipar-mendebaldera, Hernanin barrena, desbideratzen da Añarbe eta Urdaburuko mendi bizkarrak saihesteko, eta Donostian itsasoratzeko.


Errepiderik ez zenean, ordea, oinez ibili behar. Eta, Urumeako oinezko bide zaharrak bazuen ezaugarri berezi bat: Hernani eta Goizueta lotzen zituen oinezko bide zaharra egungo errepidea baino motzagoa eta zuzenagoa zen. Lau kilometro motzagoa, hain zuzen ere. Gezurra dirudi, baina hala da. Oinek errepideak egiteko hondeamakinak baino errazago zizelkatzen baitituzte bailararen nortasunaren parte diren magal malakartsuetako bide zuzenenak. Oinez zihoanaren helburua ere bazelako ahalik eta bide erosoena eta motzena egitea.

OINEZKO BIDE ZAHARRAREN EZAUGARRIAK

Hernani eta Goizueta herriak lotzen zituen oinezko bide zaharrak euren arrazoiak duten baldintza batzuk betetzen zituen. Batetik, bidea ahal den heinean ibiltzeko eroso izatea (erria zubia zegoen eremuetan zeharkatu, harkaitzez osaturiko hormak saihestu, eremu zailetatik ez sartu...), eta, bestetik, arestian esan den moduan, ahal den motzena izatea zen. Hala, Urumeako oinezko bide zaharrak, Hernani - Ereñotzu - Arano - Goizueta etxe eremuak lotzen zituen. Gizakia bizi zen inguruan, beti ere, deskantsua hartu, edota zerbait beharrez gero, ziurragoa baita jendea bizi den eremuetatik joatea.

Baldintza horiek kontuan izanik, eta mapa zaharretan adierazten dena jasota, bailarako herriak lotzen zituen bide zaharrak baditu aukera ezberdinak, bidezidor aldaerak, baina, orokorrean, bideak antzekoak dira nagusiki.

Jon Mari Beasainek eta Hernaniko Udal Artxiboko arduraduna den Txuso Gómezek atera zituzten errepidea egin aurreko bailarako bide zaha-




rreren mapak artxiboko apaletatik. Mapa horiek izan dira oinarria, adineko testiguen esandakoe-kin batera, bidearen nondik norakoak jakiteko, eta horrekin, bide zaharra nondik zihoan, eta egungo egoera ikusita, nondik joan daitekeen di-seinatzeko.

Errepidea egin aurretik, gutxi gorabehera, oi-nezko bide zaharrak zuen ibilbidea hau zen, eta hala islatzen da ere mapa eta testiguen baitan: Hernaniko plaza - Portu auzoa - Altzueta sagar-dotegia - Añarregi baserria - Usategieta baserria - Fagollagako zubia - Ereñotzu - Latse - Olazar - Ugaldetxo - Sagarminaga - Beheko Arano - Goiko Arano - Goizueta.

Bide zaharren pistak jarraiki, Urumea bailarako adineko hainbat pertsonari galdetu zaio bidearen nondik norakoei buruz. Hala, lekuan-lekuan, ba-koitzaren baserriaren kokapenaren arabera oso garbi azaldu izan digute testiguen bide zaharra nondik joaten zen euren baserri inguruan. Izan ere, errepidea egin zenean, askok ez baitzuten autorik, eta oraindik ere, oinezko bidea asko era-biltzen baitzen. Hernani eta Ereñotzuko bidearen

testigantza eman digu, esaterako, Ereñotzuko Akola baserrian jaiotako Antonio Santa Kruzek. Hark bideratu gintuen bideak Altzueta aurretik Añarregiko norabidea hartzen zuela pentsatze-ra, eta handik Fagollagara ere jaisten zela. “Hura zen bide nagusia guretzat. Ez guretzat bakarrik! Baita apaizarentzat ere! Pentsa, ni komunioa egi-tera Hernanira joan nintzenean, oinez joan nin-tzen aitarekin, eta bueltakoan, Añarregiko horre-tan topatu genuen apaiza, Ereñotzutik Hernanira bueltan. Hark komunioz jantzia ikusi ninduela eta, hura ilusioa egin zidana! Bide hartan topatzen gi-nen denok!”. Antoniok esandakoa, mapa zaharrek ere islatzen dute. Azken finean, bide motzena hu-ra baitzen.

Ugaldetxo eta Arano arteko zatia ere ez ziren errazak izan bide zaharra topatzeko saiakerak. Mapak gutxi gorabeherako bat jarri, eta ez baitzen erraza nondik abiatu jakitea. Hala, Pikoagako Jua-nito Galdeanok argitu zigun: “Bide zaharra? Hara! Hemendik barrena, bidezidorrean gora jo, eta hor-tik Sagarminagaraino zen. Hori zen oinezko bide zaharra!”. Eta hala azaldu, eta hala saiatu ginen gu ere basoan barrena hura bilatzen.



URUMEA MAILAKO JOAN-ETORRIAK DOKUMENTU ZAHARRETAN

Paper zaharrek ere sekretu asko gordetzen dituztela eta, horietan ere arakatu dugu, eta Urumea bailaran izandako joan-etorrien berri ere eman digute horietako batzuek.

Jarraian, horietan aurkiturikoak, zeuden moduan jarriak:

Hernanitik Iruñara bidean, Goizuetatik barrera mandoarekin joaten zirela ziurtatzen duena:

1536

"... Juan Martínez de Obanos, vecino de Hernani, en 1536 trajo a las últimas ferias de San Cristóbal de Pamplona 20 cueros corregiles y 4 docenas de betelines, por valor de 30 ducados, parte de los cuales fueron vendidos. Mandó después a un criado suyo, llamado Miguel de Macazaga, vecino de Hernani, y al hijo de éste, con 4 acémilas cargadas para que llevasen los cueros sobrantes a las ferias de Marcilla en agosto, donde vendió parte y le quedó por vender tocino, que trajo a Pamplona... Por septiembre y octubre del mismo año se le tomaron 20 cueros corregiles y 16 docenas de betelines que valían 44 ducados. Para llegar a Pamplona pasaron por Goizueta..."

(Álvaro Aragón Ruano, Comercio, transporte y conflictividad en la frontera entre Guipúzcoa y Navarra durante la primera mitad del siglo XV, 53. orr.).

Urumeatik bide garrantzitsua eraikitzekeo proiektua bertan behera utzi zutena, Tolosari ez zitzaizolako interesatzen:

1598

"... Hubo un intento en 1598 de construir una via terrestre de cierta importancia cuando San Sebastian y Hernani proyectaron un camino siguiendo el Urumea... La idea chocaba con los intereses de Tolosa..."

El conflicto se resolvió en las Juntas Generales de ese mismo año: la mayoría decidió que el proyecto de carretera del Urumea debía abandonarse"

(Iñaki Egaña, *Mil noticias insólitas en el país de los vascos*).

Goizuetatik Ereñotzuko portura "duleria" eraman zutenekoa:

1678

"... paso por esta villa [Goizueta] cierta cantidad de duleria en troncos o tablas... Juanes de Lazcorret, sastre... natural de labor a bajanavarra le embargó toda la duleria que el dicho Noblea conduxo al Puerto de Erenozu."

(Patziku Perurena, *NAHko Protokoloak*, 1678).

Leitza, Leitzalarrea, Urepel eta Mandoegitlik barrena zihoan bidea Abadegurutzeko mendizkarrean Amerondik igotzen zenarekin elkartzeko zen. Handik Leuneta eta Etzelako bidegurutzetara iritsita Goizueta, Arano eta Hernaniko bidetara eranstea aukera zegoen. Bide horretatik garraiatu zituzten itsasontzien eraikuntzarako gilak, uztarriak eta beste egurrak Leitzalarreetik Hernaniraino.

1719

"... para la construcción en Pasajes de unos navíos para la Armada Real en 1719, documentos nos indica de qué lugares llegaban los materiales que posteriormente se llevaban en alas desde Hernani a San Sebastián,... Ejemplos:... 13.593 reales de vellón pagados un vecino de la villa de Urnieta por el acarreo de cinco quillas incluso en ellas una vorja y dos yugos desde el paraje

nombrado Uepel (sic) camino de Leizalarrea ásta el Puerto de Hernani en la forma

(*El Urumea y los puertos donostiarros, Pasajes de San Pedro, 1933, pp.9 y 12. 44 Archivo de Simancas. S.M. 597.*)

... creo que ha quedado demostrado que el volumen de mercancías que se movía por el Urumea era muy importante, principalmente vena y el hierro producido con ella en ferrerías, no solo del valle del Urumea, sino también del Leizaran y del Oria y maderas, en muy diversas formas, para la construcción de navíos que llegaban a Hernani no solo de los montes del entorno del Urumea, sino que, como hemos visto, venían de lugares como Leiza, Elduayen, Areso o Gorriti entre otros

(Iñaki García de Vicuña Olaizola, *El transporte fluvial en el Urumea. Actividad y gestión de sus puertos. Siglos XVI al XIX*).

Urumean asko izan dira joan-etorrian ibili direnak: burdin zakarra eta landua, aingurak, egurra, oholtza... garraiatu izan dira baidarako bideetatik barrena:

1754

"... [El Urumea] Entra en Guipúzcoa por más arriba de las herrerías grandes de Picoaga, y bajando por el barrio que se dice de Urumea y por las herrerías de Ereñozu y Fagollaga, sale a las riberas de Hernani, de las más espaciosas y fértiles de Guipúzcoa... Es río navegable más de dos leguas, desde el puente de Santa Catalina hasta algo más arriba de Ereñozu, y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián, y hoy los anclotes y anclas, piezas cada una de 74 a 76 quintales, como son las que se han labrado este año pasado. Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajeles al puerto de Hernani y de aquí por el río hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra hasta la Herrería del Pasaje... Es tan copioso en aguas, que cuando estos últimos años han estado paradas las herrerías por la sequía y falta de agua en los ríos, no han cesado de trabajar las herrerías de Urumea"

(Manuel Larramendi, *Corografía de Guipúzcoa*, 1754).

”

**Hernanitik ateratako 3.000 frantses, Goizueta-
ra iritsi ziren Aranotik pasata. Hurrengo egu-
nean, Urnietara joan ziren, Aranotik pasa gabe.**

"... Llegaron a Arano a las 9 de la mañana 9 miqueletes armados, paysanos de Ernani y Urnieta; que dijeron andaban persiguiendo a los ladrones; y habiendo comido en Arano, llegaron para la noche a esta de Goizueeta, y el día siguiente día 6 Domingo, a luego de comer, fueron a Leyza sin que hiciesen demostración alguna;...".

“... Habiendo salido de Ernani a las 6 dadas de la mañana los franceses en numero de 3000, su jefe, el gobernador de Pamplona Ave, un general, un coronel, y gobernador de la plaza, llegaron a esta de Goizueta por Arano a las 9 de la mañana... Volvieron el día inmediato por la mañana a Urnieta sin entrar en Arano...”

Lord Wellingtonek Goizueta uzten du, eta Arano eta Hernanira abiatzen da:

"... Para las 8 cerca de la noche, llegaron con 3 oficiales unos 200 y pico de franceses; y habiendo tomado raciones de pan y vino, marcharon a Arano la misma noche a las 2 de la madrugada que fue día 16 Viernes, y de Arano el Sábado 17 por la mañana marcharon para Ernani".

"... a las 11 1/2 dadas llegó el generalísimo de todos los ejércitos Lor Wellington con su comitiva, el Gral. Alava y otros oficiales, y sin apearse marchó a Arano y Hernani con mucha brigada, mas de 1500; siguió parte, y otros quedaron aquí haciendo almacén de harinas y galleta en la iglesia que metieron pasadas 200 cargas.

El 14 de julio cerca de las 12 llegó de Hernani L. Wellington con el general Alava. Sargento Mayor Ulzurrun de Mina y otros personajes. Salió el Atte. sin vara a la bocacalle de Martitxoenea y le combidó a la casa de D. Juan Bta. Gregorio de Minondo a tomar alguna refección, y aunque se excusó con mucha política del combite, se agarró del freno y lo conducié a la casa de dicho Minondo, y habiendo tomado un bocado marchó para Baztan luego.

"... A las 4 de la madrugada todos los de aquí [franceses] fueron a San Sebastian por Arano, y que debían salir de San Sebastian todos los marinos hacia Madrid".

El 31 de Agosto, martes, Wellington pasa por Articutza con cerca de 2000 soldados haciendo muchísimo daño en los maíces, cortando todo de pié para sus caballerías”.

Eta oinezko bide zaharra berreskuratuko bagenu?

Frantsesek, mikeletek, soldaduek, brigadek, sal-tzaileek eta herritarrek horrenbeste aldiz igarotako paraje eta bide zahar hura berreskuratzea eta ezagutzea ederra litzatekeela eta, arestian esan bezala, bidearen nondik norakoak bilatu ziren, eta bilatzeaz gain, oinezko bide zahar hori berreskuratzeke aukerak ere begiratu ziren.

Diseinatu da trazatu berria izan daitekeena, egungo egoerara moldatzea edukiko lukeena aldaketa askorik eragin gabe, eta ekonomikoki aurrera egiteko erraza izan daitekeen proiektua gauzatzeko. Bide zaharra ahal den guztian errespetatuz egokitu nahi da berria ere, eta bailarari balioa eman. Izan ere, Urumea erreka paretik doan gaur egungo “karreterak” oinezko bide zaharra baztertuta utzi zuen, eta bide hau berriro bultzatu eta egokitzea oso interesgarria izango litzateke Urumeako biztanleen lotura sustatzeko eta bertako balio kulturalak, historikoak eta naturalak ezagutarazi eta merezi duten lekuan jartzeko. Bailarako jendearen arteko harremanak indartuko lituzke horrek; mendizale eta mendi-bizikleta zaleei aukera berri polita eskainiaz.

Proiektu honen etorkizuna amestuz, Leitzaraino ere luzatzeko aukera emango luke. Plazaolako trenbidearekin lotuta Andoinen barrena zir-

kuitu itxi bat osatuz, izan ere, Hernanik, Ereñotzuk, Aranok eta Goizuetak badute halako zerbaiti erantzuna emateko ostatu eta taberna nahiko. Eta zer esanik ez, Urumea bailarak ematen duen bailara itxi eta basatiaren sentsazioa, askorentzat erakargarria izan daitekeena, eta era berean, erritmoa jaitsi eta bertako ondareaz gozatzeko aukera paregabea. Izan ere, Urumea zerbait bada, ondarea da.

Hernaniko Portu auzotik hasi, eta Urumean barrera, sagardotegien eta sagastien mundutik igaro, Comète sarearen historia jakin, eta Ereñotzura barneratuko ginateke. Latsen, Txirrita bertsolari handia jaio zen izen bereko baserriaren ingurutik pasatzen da ibilbidea, esaterako. Gaur egun baserri eroriaren aztarnen ondoan txirrita irudikatzen duen harrizko bustoa ikus daitekeelarik. Eta Latsen daukagu burdinolen garaiaren ondoreko industria aldaketaren lehenetako testigu den Latse izeneko fabrika. Pabilioi, tximeni handia eta langileen eta nagusiaren etxeak mantentzen dira oraindik. Lanean iraun zuen 1884. urtetik 1973. urteraino. Egurraren destilazio deribatuen produktu kimiko ugari produzitzen ziotuen. Metro batzuk lehenago Ereñotzuko baratz baten erdian, Juan de Urbietaren soldaduaren oroigarria tente jarrita dago, jaio zen toki berean. Pa-




viako batailan, 1525. urtean, Frantziako erregea preso hartu zuela omentzeko. Eta kontaezinak dira, horiez gain bidean aurki daitezkeen historiari loturiko arrastoak.

Aberastasun naturala handiko mendia eta erreka inguruak elkartzen ditu ibilbide honek. Gordailu megalitiko interesgarriak daude oso gertu. Aspaldiko bide zahar honetan Erdi Aroan XIV. mendean hasi eta XIX. arte burdinolen, ontziorlen eta egur eta ikatz garraioen aktibitate handia ezagutu zen. Orduko burdinolen, aingura tailerren, portu eta "lonjen" aztarnak, zubi, dorre etxeak eta garaiko izenak aurkitzen ditugu bide-nabar. Garraio gehiena mandazainek beren mando sailekin egiten zuten. Produktu landu edo bukatuekin irabazi gehiago lortzen zuten eta bide estuetan erosoago mugitzen ziren. Goizuetara eta Leitza aldera zihoan gurdi bide zabala berriz, maldak salbatzeko desbideratzen zen bira gehiago emanez. Horrela Abañoko erreka bazterretik Aranora eta Errekalkora igotzeko Abañoko aldapatatik igo beharrean, gurdiak Arola eta Sagar-gazte baserrien barrena Aranoko Beheko Herri-
ra igotzen ziren.

Naturak gizakia irensten duen bide zahar honek, era berean, errio urtsuaren eta erreka-stoen eremu hezean eta landaretsuan sartuko gaitu. Hainbat espezie mehatxaturen babeslekuan barrena igaroko gara, mundu mailako endemismo, iratze paleotropikal, Pirinioetako animalia berezi eta faunan eta floran aberatsa den bailaran.

Bide zaharrak, beraz, bide berri bat irekiko luke, bai bailararen harremanean, bai bere ondarea ezagutzeko garaian ere. 21 km-ko ibilbideak, egun bakarrean egiteko modukoa izanik, paisaia urbanotik, baso, errio, landa eremu eta herri txiki eta auzo ezkutuetatik barrena sartzeko aukera bikaina ematen digu.

Urumeako oinezko bide zaharraren bilaketak, beraz, balio dezala bertako herritarrei euren iragana erakusteko ez ezik, Urumea bailararen etorkizunerako ibilbidean, pausuz pausu bide berri bat irekitzeko.



Esker onak:

Artikulu hau egitea niri egokitu zaidan arren, Urumeako oinezko bide zaharra berreskuratzeko bidean bada taldetxo bat, bakoitzak bere alea jarriaz proiektu txiki hau aurrera ateratzea egiten ari dena. Eskerrik asko, Aranoko Jon Mari Beasain eta Joxan Ruizi, Hernaniko Iñaxio Sanz-i, Goizuetako Iñaki Bakero eta Iñaki Echeverriari.

Eskerrik asko ere, erreportaje hau publikatzeko garaian, testuaren idazkeran eta berak egindako hainbat elkarriketa kontuan izanik, iruzkinak eginez laguntza eskaini didan Iñaki Sanz-Azkueri.

Guztion artean, egiten dugun bide zati bakoitza ederragoa da!